

**BIZKAITARRAI-
BIZKAIERAZ***

www.euskerazaleak.biz

315n. zenbakia

2006 martia



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE

LUZAIDE (NAFARROA) “SANTI BATEK, ANDERE”

Erri polita da Luzaide. Beti mugan. Bide luzea egin bear duzu Iruñetik arat iristeko. Naiko lan ematen du batzuetan Ibañetko mendiak pasatze orrek. Eguberrietan are gehiago.

Nere aintzinako laguna den Veronica Barzelonak anitz maite du bere sort lekua, badaki zer den urrun egotea, bera Ipar Ameriketean lanean egon zen bezala, urteetan. “Gurutzezarko” etxeoandrea dugu, toki zoragarrian dagon etxea da ori, lagun ona ere. Arek bidali dit Luzaiden kantatzen den kanta bat Eguberrietan, baita Baxenafarroako errietan ere kantatzen dute etxez etxe puskek biltzen direnean.

Euskaldun aurrak opor egun auetan ikasi, eta kanta lezaketeena

1) Santi batek, andere
Aurten bezala gerore,
Santi batek igortzen gaitu xingarketa gu ere.

2)Ez gabiltza ederrez
Ez eta ere bearrez:
Kostuma zaharren uztez erreprotxa beldurrez.

3)Tolosa eta Bayona

Jainkoak dauz egon ona
Guri xingarraren emaitera jaiki bazinte huna!

4)Ez dugu nai urdia
Ez eta ere erdia
Usaia gatik, kostuma gatik,
Liberako zatia eta gerrenaren betia.

5)Etxian eder gerrena
Etxekandere lerdena
Zureriko eraztun ortaz eros niro Bayona.

6)Etxean eder kortzeiru
Dabiltzarian inguru
Etxe ontako etxekanderia zer emazte plaxenta!

7)Etxian eder oako
Aurra sor
Dabiltzaarian inguru
Ta, ta zilar kaderan jarriko.

8)Landan eder
Haren pean belarra...

OILARRAK KUKURRUKU

Abereak jakin omen zuten Jainkoak jaio zela. Gau erdian bai zen, oilarrak non kantatzen duen:

– Kukurruku! Jesus jaio daaa!
– Nuun?– erantzun zion idiak
– Beeleneen!!– ardiak

Baño, nolabait petral batzuk ez dira sekulan faltatzen, zaldiak ez omen sinestatu eta...

– Iji-ji-jii!! Barre egin!
– Astoak, berriz, anka luzatu eta.
– Ii!-ji-jiii!– barre egin!
– Astoak, berriz, anka luzatu eta:
– Tas-tas-tas... Iru ostiko bota omen zituen.

Jainkoak denak ikusten baizituen kastiguren bat ema-

tea buruan artu izan behar zuen.

Baño, badago gehiago ere. Errege gaistoak aurra il nai zuela eta, andik ateratzean, mando baten gañiain omen ziren Ama Birjiña eta Aur Txikia.

San Jose prisa, eta mandoari emanka! Mandoa berriz, bere pausuan. Ezin gauz onik egin. Alako batez, aztapaa-tu mando ori eta lurrera denak!

Orduan, Jainkoak mandoa ere begitan artu omen zuen, eta arrezkero ez zaldiaren, ez astoaren eta ez mando aragirik ez omen du jan bear kristauak

Ala baldin bada, izan diela.
Eta ez bada, probetxu dagiet.

Xole Erbiti

BIZKAITARREI BIZKAIERAZ

MOSCU'N EUSKERA IRAKASTEN

Amaia Egilegor ernaniarrak euskera irakasten diardu Errusi'ko uriburu dan Mosku'n. Bera filolozian baimendun da eta iru urte daroaz lan orretan, aurrean ogeta amar ikasle dauzala. Irakaskintza Moscu'ko Ikastetxe Nagusian filoloji eta izkuntzalari-saillean beteten dau. Orretarako, sei illebeterik sei illebetera iragarten dau ikastaroa, ikasleak ugaritzeko.

Emen baiño giro otzagoa dauka an, baiña Euskalerrigaz artu-emonetan irauteak arintzen dau neke ori.

Esateko dauzan gauzak alkar-izketa-bidean agertuko dauskuz.

- Zergaitik joan ziñan ara?
- Eslaboen filolojia amaitu nebanean, Moscu'ko Ikastetxe Nagusian euskera irakasten zala jakin neban eta aldi aretan bertan ango euskera-irakasleak bere lana itzi ebalako, neuk artu neban lan ori.
- Nor izan zan zure aurreko irakaslea?
- Lazkao'ko mutil gazte bat.
- Maite dabe euskera Errusiararak?
- Errusitarrentzat euskera izkuntza jatorrra da eta maite dabe, baiña euskeran geien maite dabena aditzaren nork -jokoa edo ergatiboa da.
- Zergaitik dago an euskera ikasteko zaletasun ori?
- Ba-dot ikasle bat jatorriz euskalduna dana. Onen aiti-ta emendik ara guda-aldian joan ziran umeetariko bat da.

Ikale onek bere ikasketak amaituta eukazan, baiña pozik sartu zan gure irakaskintzara.

- Errez agoskatzen dabe euskera errusiararak?
- Bai.Errez. Eurak be ba-daukez gure ts ta tz abotsak, baiña gauza batek izten dauz arrituta, "il" idatzi eta "ill" agoskatzeak: "Ilargia"/"illargia".
- Eta gure aditzari zer deritxoe?
- Gure aditza ikastea gatx egiten jake, gauza asko diralako kontuan artu bear dabezenak.
- Izkuntza bakarrik irakasten dozu ala euskal jakintza be bai?
- Euskal kultura edo jakintza be irakasten dot, esatera-ko elertia edo literatura.
- Ez dago Moscu'n Euskaletxe edo olakorik?
- Ez, ez dago olakorik ezer, baiña bai ainbat jatorriz euskaldunak diranak. Oneik gogo bizia dauke gure izkuntza ta kultura artzeko.

Gaiñera, "Ikasleen Aldaketa" deritxon egitasmoaren barruan, urtero iru euskaldun joaten dira Euskalerririk ara eta sei errusiar etorten dira andik Euskalerrira.

Eskerrik asko, Amaia:"Eman eta zabalzazu munduan frutua".

Olazar'tar Martin'ek

ZIRITZA (ETXAURI'KO ARANA) IRUÑERRIKO MERINDADEALDEA

EGUBERRIKO KANTA

Zinbili Zanbulu
Binbili Banbulu
Arrebutxe Castañas
A regar la montaña

Kanta hau abesten omen zuten EGUBERRIETAN,
etxez etxe opari bila joaten zirenean

SAN JUAN BEZPERAKO KANTA

Gilgilimatxo Sarnafuera
Ogi eta Ardo Nafarrora
Andre guztiek Itzilipurdis
Gora San Juan bezpera

"O"KO AMABIRJIÑA

Maiordomoek joaten omen ziren egurra egitera
Gero egur aiekin sua. Gero errezatzen zen arrosarioa.
Baselizan zegon Ama Birjiaren irudi ori. Oialazko
soñekoa zuen irudiak. Jeitxi omen zuten zen errira,
ebatsiko ote zuten beldurrez. Eta beste irudi bat,
ordezkoa baselizara igo.

DATOEN EMAILE: Brígida GARATEA AGINAGA
Bere aita: GARATEA MUNETA
Bere ama: AGINAGA OLZA
Jaioterria: Ziriza (Valle de Etxauri) - 1922
Aita: Zirizakoa
Ama: Etxebarri (Arakil). Hau, euskalduna omen zen
Familia: 9 senide
Iruñean, 2005eko abenduaren 18an jaso.

Xole Erbiti

EUSKERA BATUA AZTERGAI

DEIA gure egunkarian alkar-izketa bat agertu dau Koldo Zuazo'k (2005-01-24). Gaia Euskera batuaren edestia eta gaurko egoera da eta egun onetan idaz-lan au agertzeko zioa berak argitaratu dauan "Euskera batua, eziña ekinēz egiña" aurkeztea.

Liburu ori eskuetan daukagunean arazoa sakonago ta zabalago aztertuko dogu, baiña gaurkoz, beioaz bein-beiñeko eritxi oneik. Euskerazaintza Euskerearen Erri-Akademia'ren giroan egiten dogu idaz-lan au, gitxienez jakin dagien beste era batera pentsatzen dogunak be oraindiño bizi garala.

...

Datazko egun bi dira garrantzitzuenak arlo onetan, bata batua Arantzazu'n sortu zan 1968n. urtekoa eta beste 1978n. urtean Bergara'n egin zan batzarrarena. Azkenengo egun au batuaren amar urteak aztertzeke izan zan, baiña an ez egoan aztertzeke erarik, erabagiak artuta egozan batzarra egin baiño lenago.

Batzar bi orreitan argi agertu zan Euskaltzaindiaren gogorkeria, setakeria, eta Bizkai'ko euskerea bazterzeke gurari bizia. Zergaitik gurari au? Ez dot aurkitu Koldo Zuazo'ren erantzunik. Bizkaiarea alboratuta egiña dan batua ez dogu iñoz onartuko. Samiña da bizkaitarrak arlo onetan izan dogun isiltasuna edo bildurra. Emen gagoz bizkaitarrak eta euskaldunik erdiak geu gara.

...

XVI mendetik asita egin diran alegiñak gogoratzen dauz idazleak, baiña alegin orrei jaramon gitxi egin jake, esaterako Azkue'ren gipuzkoera osotuari. Zergaitik? Ba-dirudi aspaldion erabilten dan euskera batua orrantza doala, gipuzkoera batua geiago dala, asieran ezarri nai izan zan Iparraldekoa baiño.

...

Batuaren bidea "luzea ta neketsua" izan ei da. Obeto esanda legoke bide ori "gitxi batzuk asmatua, setakeriz agertua eta aginpidez ezarria" izan zala esatea.

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

Oraindiño gaur be atxea bearrezkoa dan erri zeiriari itauntzen dautsagunean, alperrekoa dala erantzuten dau eta bizkaierea batura sartu bear dan itauntzen ba'dausagu erriak baietz erantzungo dau. Onartuko leukee, bear ba'da, gipuzkoera osotu bat, baiña ondo egiña, "osotua" ba'da.

Batuak sortu ebazan zalaparta aundiak aitatzen dira, baiña zalaparta orreik eta geiago bearrezkoak zirala esan bear, batua txarto egiña zalako.

...

Batua bearrezkoa zala gauza ziur lez ezarten dau Zuazo jaunak, baiña ni ez nago ain ziur. Baturik ez zan bear, naikoa zan norberarena eta beste euskalki bat jakitea

Zuberera ez litzakela sartuko or? Ez, egia da, baiña batua jakin arren zuberera ez da gutzat errezagoa eta zuberotarrentzat be ez da batua ulertzea errezagoa. Eurak ez dabe erabilten baturik, eurena baiño.

Zer lortu dogu? Lengo euskerea eta, gaiñera, batua ikasi-bearra. Euskera batua ez da euskaldun guztiok, Zuberotarrak barru dirala, ulertzeke modukoa eta ez dogu uste iñoz be izango danik. Eta Zubero'ko euskerea galtzeke arriskua ugaritu egiten dau batuak.

...

Euskalkiak agozko jardunerak dirala diño idazle onek, baiña ez begi aitzu euskalkiak benetako izkuntzak dirala eta elerti-arloko libururik onenak euskalkiz idatziak.

Batuan, ostera, ez dagoala elerti-arloko punterengoa dan idazkirik. Orrelantxe jazo zan Grezia'n, "koine" sortu zanean, orduko elerti ederra betiko galdu zan.

...

Eta irakaskintzarako bide egokia gure Juan Luis Goikoetxea'k bere Maisu-Lan Nagusian agertzen dauana da: Euskerea jakitea, lenengo euskalkiak eta gero batua jakitea da, Labairu taldearen oiua dan lez, "dakigunetik ez dakigunera".

...

Euri asko egin dau batua sortu zanetik. Gaur ainbat gauza egiñak dira, setakeriz eta agintarien laguntzaz lortuak, baiña or dagoz.

Guztiok ikusi bear dogu aurrerantzean euskerea nondik nora eta zelan zabaldu eta sendotu bear dogun, bizkaierea alboratu barik, bizkaiereari batuaren barruan zor jakon lekua emoten jakola.

Olazar'tar Martin'ek

BEREZ-SORTUA=JAIOTZA=ABERRIA

SARRERA:

Gaur egunean arritzekoa da, politikuen artean erabilten dabezan jaiotzaren iru zentzu oneik ikustea.

Esan leike, bakoitzaren alderdi aldera jokatu ez gero, dan guztiak balio dauela.

Mundu onetan, sekula ez dot uste ainbeste maltzur-saldukerizko adierazpenean ibiliko ziranik, berez jaiotasunezkoa danari.

Nik, iru itaun galdetuko neuskiez politiko onei: a) “Gure antolamenduaren ardurak... berez jaiotasunezko eskubideen gaiñetik dagoz?”, b) “Gure ardurazko ekintzan, zer ulertzen dogu... Jaurri, Jaurkintza eta zuzenduaren, izen argigarriakaz?”, d) “JAUNGOIKOA’gan sinisten dogu?”

BEREZ SORTUA:

Berezitasunezko Mundu onetan dan guztia, sortarazteko antolamenduan egokituta dago, eta ez dago gure almenean ezer aldatzerik.

Bere emonkortasunak ez dauka amaierarik, eta gogamen guztiak sorraldirako bideratuta dagoz, ez dagoelako beste biderik. Nai gaien, nai gure oldozmen edo gogamenean, guretzat dana egindadagoelako beste aukerarik gabe. Sorraldian era barriak sortu daitezcan gizartearen onerako, gure gogamen-onagaz danon artean bakoitzari bere zor-eskubidean banatzeko ardurean.

Banatzeko arlo onetan baiña, sortzen dira negar-barregarritzko gauzak orreik, batzuk, geiagoren gosean dabizelako.

Ez dira oartzen edo konturatzen, Mundu edo Ludi au fisiokoa dala, eta leku batetik neurritz kanpo artzen danean, besteak neurri bardiñako gabetasunean geratzen dirala.

JAIOTZA:

Mundu onetan, JAIOTZA ikusten dogun lez berezkoa da, eta iñork ez dauko eskubiderik, bestien eskubidetik ezer artzeko, danok bardin jaioten garalako.

ZERGAITIK?: Amen JAINKOA’ren miresgarria.

JAINKOA’k, aberetasunezko gorputz oneitan, gure ari-mak bialtzen dauzalako, arrazoitasunezko almenagaz.

Eta... zer esan gura dau orrek?: ARIMA bakotza, ikertzailletasunezko Mundu onetako LEGE-artera bear dauan tresneriekin bialtzen dauala, LEGE orreik ulertuta, garailletasunean agertu gaitezcan.

Tresneri orreik zeintzuk dira?: Ikertasunezko Mundu onetan, Arrazoitasunezko ARIMA’k izatea, bakoitzari ardurapean sartzen gaitu. Eta orren esan-gura, eginkizun guztiak nor-beren ardurapean sartzen daukuzala da.

Or! non agertzen jakun tresneri aundi ta ederrenetariko bat “NORTASUNA”. Besteak, berezkitasunaren legeak dira. Eurokaz batera erperatuta gagozenakaz.

Orregaitik eta beste aukerarik gabe, gure ziurtasunezko antolamenduetan agintzen doguzan legeak, berezkitasuna-

ren legea oiñarrituta egon bear dira, gure arrazoi bidean, beren bereiztasunetik artuta izan bear diralako. Mundu onetan, iñork! ez daukalako eskubiderik beren legerik atarateko, berezitasunetik kanpo NORKERIEN-LEGEAK-DIRALAKO.

ABERRIA:

Iker-Gai-Mundu onetako babesaren billa, gure berezitasunaren lojikazko antolamenduan, senituta leiñutu gintzazan, leiñu-arteon auzondu ta lurralde aundi baten aberritu, mailla bakotzak, NORTASUNEZKO NEURRI BARDIÑAK EUKIN DA.

Izkuntzan, oituran eta erlijiñoan, sendimendu batean sartu giñelako. Bakotzaren NORTASUNA, berezko legebereizketaren ekintzazko goraldean ERKIDETASUNEZKO-NORTASUNERA berez eltzen dira gauza guztiak. Eta ABERRIA’k or! berez agertzen dira.

“GURE ABERRIA EUSKADI DA”

NORKERIEN bidez, iñork! ez dauka eskubiderik iñoren NORTASUNIK menperatzeko. ESKUBIDE BARDIÑEKOAK GARALAKO.

Eta gaur, makiña bat norkerietan gabiltz, bestien eskubidetik lapurketan eginda, gai onetan batzuk, sasi-jainkotasunean bizitzeko.

Emen itzi bear doguz gai-guztiak, era barriak sortu daitezcan. Eta ez dago egia aundiagorik.

EUSKADIN:

Gaur, Euskadin ikusten doguna, menperatzaillearen norkerizko guzurak beezko legearen aurka, gudar-indar nagusiak daukiezelako, euren ustez nasai dabizela.

Ez dira konturatzen, Mundu onen berezko legearen aurka, guzurak okerrezko gauzak dirala, eta iñork bere zentzunezko barnean ez dauzala on-artzen, nai-ta bestien aurrean, guzur orreik aldarrikatu.

Orregaitik, ARRAZOI GUZTIA gure alde egonda, ulertu eta jakin bear dogu, zelako jokoan sartuta gagozan. Izkillu barik! arrazoizko joko-gauzak diralako.

Len izkilluaren guda-indarrez menperatu ba-genuen, gaur ez daukie orren aukerarik, gudaren keuñuakaz ibilita be. Munduan artuta dagozan erabagiak, demokraziruntz’eko arrazoizko erabagiak diralako.

Goian esan doten lez, negar-barregarritzko guzur orreik, eurak be ez dakie zelan goxokiztu, euri-be lotsa emoten dautselako berba orreik esterakoan.

SORTERRIZKO NAZIO edo LATERRIA, BEREZKO NORTASUNEAN EZARTZEN DANA DA. ETA IÑORK EZ DAUKA ESKUBIDERIK NORKERIEN BIDEZ MENPERATZEKO. OR! “EUSKALDUNEN ARDURAZKO EGINKIZUNA”.

Atutxa’tar Paul

GENITIBO BITXI BAT: ENE = NEURE, NERE, NIRE?

Iparraldean kasu guztietan erabiltzen da: *jene ama maitea!* ta *ene ama etorri da*. Egoaldean ostera, erri mailan beñepen, bokatibotan bakarrik, au da: *jene ama maitea!* baiña nire ama etorri da, ez ene ama etorri da. Orduan, *ene* ala *nire*, zein da genitibo soil jatorrena?

Ara idazle batzuk zer esan daben ene-ri buruz: genitibo onen nominatiboa ez dala ezagutzen (Van Eys); bokatiboa dala (Zamarripa); ez dala *en naiz* esaten ni naiz-en orde ez eta enek euskaldun guztiok darabilgun *nik*-en orde (Azkue); zarrena dala ta ni datiboa nominatiboa biurtu dala (Irigoyen); “anormala” dala (Lafon); *ene*, *ni*-ren genitiboa dala testo zar guztietan Bizkaiatik Zuberoaraino ta Egoaldean bokatibotan erabiltzen dala bakarrik (Sarasola); euskalki guztietako testoetan erabiltzen zala baiña Egoaldean *nire* ta *nerre* gero eta geiago sartzen ari dirala ene-ren kalterako, bokatibotan erabiltzen dalako bakarrik (Euskaltzaindia), nire forma modernoa dala niretik sortua analogiaren indarrez, *ire*, *gure*, *zure*-ren legez (Mitxelena) eta, danen artean, Manuel Agud jaunak e-ne zala ziñoan, bi zatitan: *ne* ‘lenengo izenordaiña’ (neu esate baterako) ta asierako *e*- “enfatikoa” edo bokatiboa. Agud jaunaren antzeko teoria darabilgu ta probatzen alegitzen gara.

Egia esan, kasu arraroa da. Onerarte esan dogu *neure*, *eure*, *geure*, *zeure*, *beure* dirala izenordaiñen genitiboak. Jatorrizko oneekandik datoz *nerre/nire*, *ere/ire*, *gure/gere*, *zure/zere*, *bere* aldaketak. Genitibo oneek *neur*, *eur*, *geur*, *zeur*, *beur* nominatiboetatik datoz. *Neur* eta *eur* nominatiboak, lenengo, erakusle zarrak sortzen parte artu eben: *aur + neur* > gaurko *au* ta *aur + eur* > gaurko *ori*. Geroago, baita be izenordaiñ indartuak sortzeko bear bearrezkoak izan ziran: *neur + aur-neur* (*neuroni*); *eur + aur-aur* (*eurori*); *geur + aur-neur* (*geuroni*); *zeur + aur-aur* (*zeurori*); *beur + aur-neur* (*beroni/berau*); *beur + aur-aur* (*berori*).

Onelan ba, ene genitiboaren nominatiboa ez da iñoiz ezagutu ta ez daukagu iñolako aukerarik zein izan ziteken asmatzeko: *n*- bakarrik?, *en*?, *-ne*? Ez dago non eldu. Beste aldetik, gizakia berekoia da ta zelan aztu leike norbera izentatzeko dan izenordaiña? Onek esan nai dau iñoiz ez dala erabili nominatibo ori. Edozelan be, nonoiz sortu izan balitz, *neure* betiko genitiboa nondik dator? Onek badaukaz bere taldekideak *eure*, *geure*, *zeure*, *beure*, sistema koerente bat osatzen dabenak danen artean. Baiña, ene anormalak ez dauka bere antzeko taldekiderik, esate baterako: *ee*, *ege*, *eze*, *ebe* lakoak. Oneen arrastorik ez da iñoiz ezagutu. Baita be, *neur* nominatiboak lagundu eban *aur + neur* > *au-ni* > gaurko *au* erakuslea sortzen eta *ene*-ren nominatibo ezezagunak orrelako ezer be ez dau egin. Bardin-bardin, *neur*-en bitartez sortu zan *neur - aur-neur* > *neuroni* izenordain indartua

ta ene-k, ostera, ezebez. *Neur-oni*-ren orde z iñok entzun edo irakurri al dau sekulan *ene-oni*?

Guk onelan proposatzen dogu ene zarraren sorrera euskalkiak bereizi aurretik:

eur + neure = ‘tu + mi/mío’ (*eur h*- barik, *h*- gabeko
eu - nere = ‘tu - mi/mío’ *e-ne* zarra egiteko)
eu - nee
e - ne

eu(r) aitari, amari, amamari, Jaungoikoari eta edozeñeri deitzeko erabiltzen ziran denporetan, zeur sorrerako plurala zanean bakarrik eta ez geroagoko singularra, erderazko ‘vos’ edo ‘Vd’ adierazteko aldatu zana.

Esanai logikoa dauka gaiñera bokatiboan: *e-ne ama!* ‘tu-mi madre’, *e-ne laztana!* ‘tu-mi amor’. Genitiboaren adierazpena eukiarren tartean, bokatibo esangura geiago dauka: *neure alaba laztana!* bokatiboa dan legez, baita be *eu-nere alaba laztana!* > *e-ne alaba laztana!*

Orrelan, *e-ne* ez da genitibo soilla, bokatiboa be beregaz daukalako. Orregaitik ezin dau euki nominatiborik eta ezin da deklinatu: *eni*, *enetzat*, *enegaz*, *enegana*, *enegandik*, *enegaitik*, etabar guztiz ustelak eta okerrak diralako. Iñork entzun al dau enez sekulan, *nerrez*, *berrez*, etabar legez?

Batzuk esaten dabe ene dala zarrena ta *nire* barri-barria, oin denpora gutxi asmatutakoa. Ori ez da egia. Guk aurkitu dogu *nire* genitibo ori “Fronteras, espionaje y vascuence (1595/1598)” idatzian, Leizarragaren sasoi-koa. Ezin leiteke esan, orduan, nire barria danik. Baita be, aurkitu dituguz: *ni-gatik*, *ni-gana* (Echepare eta Lazarraga), *ni-tarik*, *ni-zaz*, (Leizarraga), *ni-ganik* (Undiano) *ni-gaiti* (Betolaza), danak Echepare ta Leizarragaren mendekoak. *Ni* izenordaiña, nominatiboa, *neur* > *neu*-tik datorrena, argi ikusten da. Ba, nominatibo orrek, bere genitiboa, *ni-re*, derrigor izan bear dau Iñork ezagutzen al dau nominatibo bakarren bat genitiborik ez daukanik? Gaiñera, kontuan izan bear dogu *nire-gatik* > *ni-gatik* biurtzen dala eta *nire-gana* > *ni-gana*, *nire-ganik* > *ni-ganik*, etabar, beste ainbat kasutan garbi ikusten dana. Ortaz, begi bistan dago *nire*, zarra baiño be zarragoa dala, eta Iparraldean ene-k bere tokia ostu eutsala, garrantzi aundiko akats ustel bat euskal idazle guztiei zabalduaz.

Beste adibide bat lez, Iparraldean izan zan beste izugarrizko akats bat, ulerteziña. Inperatiboko naza, gaitza, zaitza, idatzi bearrean *be-naza*, *be-gaitza*, *be-zaitza*, idaztea (Ez dakigu erriak orrela esaten eban ala ez). Bonapartek ipintzen eban asierako *be*- orregaz Lapurdirako ta be- barik Gipuzkorako. Campion jaunak, idatzi eban Lapurdikoa egoala ondo ta txarto gipuzkeraz.

Baiña, Iparraldeko Lafonek eta Lafittek zuzendu zituzten auziak esanez asierako *be-* ori oker geiturik egoala. Bardin esan eben Egoaldeko Ondarra euskaltzaiñak eta José de Zabala Aranak. Alan da be, ainbeste urtetan Euskaltzaindikoko buru izan zan Villasante jaunak, *benaza, begaitza, bezaitza* ipintzen jarraitu eban gipuzkerako aditz-jokorako, lapurteraren okerra onartuaz eta ostikada ederra emonaz gipuzkerari. Ori da ori, griña, ezagutzen diran akats guztien gañetik, bape ganora barik, lapurtera goratzeko, merezi gabe. Euskaltzaindikoko arauetan, normala denez, asierako *be-* barik datoz.

Antzeko beste kasu bat. Echeperak eta Leizarragak ez eben ipini bere idatzietan, *geure, zeure*, genitiboak. Gero, mende bat beranduago, Axular-en ikusten dira biak. Orregatik esan eban Xabier Kintanak Axular-en denporan sortuak zirala itz orreek analogiaren bidez. Ori ez da egia. Aurkitu dituguz *geure, zeure*: “Carta F. J de Zumarraga”, “Lazarraga”, “Undiano”, “Ibarguen Cachopin”, “Betolaza”, “Fronteras, espionaje y vascuence” idatzietan, Echeperak ta Leizarragaren mendekoak. Ezin da esan, azken idazle bi onek ez dabelako ipintzen, ez dagola au, ori edo beste edozein itz bat Euskalerrri guztian. Argudio ustela da. Badirudi, Iparraldeko idazleak Jainkoaren urrengotzat artzen dirala, au da, utseziñak.

Oin be, *ene* genitibo faltsu orregaz, Iparraldean sortu dan akatsa Egoaldean sartu nai da, zuzen ala oker dan bape ardura barik, Iparraldeko euskalkiak utsezintzat artuaz, gipuzkera ta bizkaiera beragoko mailla batera baztartzuz. Amarretik batek egindako okerra amarretik bederatziei josi nai jake. Ori al da “pregonero” askok esandako “geien erabilten diran itzak euskera baturako?”

Xabier Kintana euskaltzaiñak, Deian (05-5-29) argitaratutako artikulo baten Lazarragari buruz, esaten dau

nabaritzen dala idazle onek Echeperen lana irakurria ebalatu ta euskal idazle zarrak, euskalki guztietakoak, asiera-asieratik, artu-emon asko izan zituzela denpora luzetan, alkarrerri eragiñez, batabesteari kopiaturaz literaturako euskera baturantz joateko. Koldo Zuazok be onen antzeko zeozer esaten dau. Jarrera ori, berez, ondo dago, baiña, lenengo, gauzak ondo aztertu bear dira itz egokiak eta jatorrak aukeratzeko, erriaren benetako euskalkiei kalterik egin ez dagian arrazoirik bage. Ondo dago Iparraldeko gauza onak kopiatzea baiña gauza okerrak be bai? *Ene* genitibo soil ustela be bai?

Lenago ikusi dogu Sarasola jaunak eta Euskaltzaindiak esaten dabela Bizkaiatik Zuberoraiño erabili zala *ene* au testo zar guztietan, genitibo soilla legez. Idazleak lagata, Gipuzkoako ta Bizkaiko erri zeiak be bai? Nola dakigu ori? Idatzia, batez be zarrak, ondo be ondo dagoz, premiñazkoak dira, baiña erriaren lekukotasuna ez da aztu bear. Erromatarrak euskalerrri etorri aurretik ez egoan ezer euskeraz idatzirik. Orduan ez egoan euskerririk? Gero asmatu eben idazleak?

Idatzi zarrak sekulako garrantzia dabela, danok bat gatoz. Baiña, ortik, amarretik amar zuzen dagozela esatea beste kasu bat da. Eta, sarri ikusten dana, Echeperak edo Leizarragak ipintzen ez daben itz bat ez egoala euskalerrri guztian esatea sinesteziña da. Orregaitik, Iparraldeko idazle zarrei itsu-itsuan jarraitzea ez da beti bidezkoa, batez be gipuzkera ta bizkaieraren kalterako danean eze-lako arrazoai barik. Euskalerrria, bere txikian, asko be zabalagoa da ta danen artean ikertu ta konparatu bear dira aldaketak, gai bakoitza ondo sakonduaz.

Iker J. Laka Guenaga

URTE-KURPILLA GORULARI

Ortzune goi-goian, urtaroak osatzen
Eguzkia dabil jira-biran sutua.
Giro aldaketan ager zaigu
zantzu biziz, Jainko altsuaren eskua.

Aurrak leioa zabaldu du.
Baratza txuri ikusi du.
– Ama! Gaur elurra degu
dio pozik, ortzak erakutsiz.
Ta beatzez, leiar lausotuan
ziriburru egin digu.

– Elurra, gaur, ene seme?
(eguzkiak par. Karnabak txio.)
Ta aurrak zer ote, negira berriz
baratzera kristaletik.

– A! Ez, ama! Ez da elurrik.
Zuaitzak loretan baizik.

Alorrean makur nakazaria.
Aldapetan buruzut kirol-zalea.

Etzitan dago Izadia,
kimuz, kabiz, ipin-apain.
Berto-jario ta kantari:
Ongi etorria, Udaberri!

Donibane pestak jaiburu.
Eldu zaigu udaburu.
– Kontuz erre, kutuntxo!
Plaza erdian zuaitz tentea.
Kalejiran jendea. Lurra zeru
sanjuan su-enbor inguru.

Soroan, jasorik galburuak.
Aize mur-mur guriz anpatuak.
Uda lana da: garia bil ta jotzea.
Tarteko besterik ez jolastea.

Lana utziz... sagardoa
bai edari ozkirri ta gozagarri!
Itsas-ertzeko ondartzan ostera
igari egiteko aukera.

Kilker arloten trikitixaz
maitemin marrubia.
Goi-utsarte urdin zabalean
izerdi partsetan eguzkia.

(17ⁿ orrialdean jarraitzen dau)

SALMOAK

88N. SALMOA: APOSTOLUEN KREDOA

Jaunak ixuri zion argia
Pedro apostoluari,
juntatu ziran apostoluak
itz egitera Amari.
Danak gauza bat erakusteko
indartzeko Eleizari,
Kredua jarri nai izan zuen
otoitz egiñaz Aitari.

Amak eskatu: “Esan zazue
bakoitzak esate bana,
misterio bat Jaun Espiritu
Santuak argi emana”.
San Pedrok: “Sinesten det Jaikoa,
Aita dezakena dana,
zeruan eta lurrean dauden
gauzak egin dituana”.

Santu Andresek: “Ta Jesukristo
Seme bakar gure jauna”.
Zarren Santiagok: Jaun Espiritu
Santuak sortu zuana,
eta Maria Birjiñagandik
jaioa izandu zana”.
Santu Joanek: “Supritu zuan
Pilatik mende zeukana.

Izan zan gurutzean josia,
illa ta obiratua”.
Santu Tomasek: “Inpernuetara
izan du zan bajatua.
Illen artetik irugarrengo
egunean zan piztua”.
Gazte Santiagok: “Igo zan eta
zan zeruetan sartua.

Aita dezakenen eskubian
eserita dagoana”.
Santu Felipek: Eta andik
berriz etorriko dana
juzgatutzero biziak eta illak
baita illa izan zana.
Santu Bartolomek: “Sinesten
Espiritu Santu Jauna”.

Santu Mateok: “Eleiza Santu
Katoliko santuena”.
Santu Simonek esana degu
“Pekatuen barkamena”.
Santu Tadeok: “Piztuera

gorputz aragiarena”.
Santu Matiasek: “Bizitza degu
azkenikik ez duena”.

Ondoren “Amen” esana zuen
esan nai du “Ala dala”;
zeruratzeko au sinistra
obligatuak gerala.
Espiritu Santuak itz egin
au ontzat artzen zuala;
Ama Birjiñak eskerrak eman
danok maite giñuala.

Birjiñak eskuz egin zituan
Kredo kopia ugari,
aingeruarekin biraltzen zizken
apostolu guztiari,
erregutuaz erakusteko
federa zetoztenari;
ikutzeakin ematen zien
osasuna gaixoari.

88N. SALMOA: SAN PAULOREN KONBERSIOA

Paulo santua berez ona zan,
oso biotz aundikua,
baiñan etsaiak bere aldera
jarri zuan indartua.
Ipiñi zion apostoluak
danak iltzeko gogua,
baita Maria ere iltzeko
zan onek errukitua.

Baiñan Eleiza ezkutatzeko
asi zan egiten lana,
eman zeieia beren baimena
juana zan apairengana.
Birjiñak otoitz egiñaz zuan
Seme Jaunari esana:
“Etzazu laga Saulo galdutzen
naiz supritzen nagoana”.

Seme Jainkoak erantzun zion:
“Egingo det eskatua,
nere izena predikatzeko
jarriko det biurtua”.
Saulo Zijuan Damaskora ta
zuan Jesus agertua;
zion: “Saulo, Saulo, zuk zergatik
nazu ni pertsegitua?”

Jaunak Saulori argitasun bat
biotzera biralduta,
zaldi gaiñetik lurrera bota,
gelditu zan itxututa.
Etsai-parteak kenduta jarri
zan aingeru biurtuta.
Ikusi zuan Jainkotasuna,
gelditua zan onduta.

Paulo lurtean zegoanean
pekatuak damututa,
irugarrengo zerura jaso
zuan Jesusek artuta.
Ikusi zitun ezin esanak
an doaiez argituta.
San Esteban ta Ama Birjiñak
bere alde eskatuta.

Jainkoa nola gizon egin zan
Paulok ezagutu zuan,
baita bere eriotzarekin
nola erosi giñuan;
nola lurtean apostoluen
lanak beretzat zituan,
baitare nola sortzez garbia
Ama zan birjin munduan

Eraman zuen Damaskon
bere lagunak etxera;
iru egunez ez jan da ez lo
emana zan otoitzera.
Ananiasek itz egitean
biurtu zan ikustera,
baita eldu zan bere eskutik
Paulo Jauna artutzera.

Paulok Damaskon barkatutzeko
eskatu ikasleari,
eta asi zan predikatutzen
egia jende danari.
Ama Birjiñak dana jakina
eskerrak eman Jaunari
Amak aingeru asko bilduta
abestu zien Berari.

91N. SALMOA: SANTIAGO ETORRI ZAN

Zarren Santiago Espaiñiara
etorria zan orduan;
Jaunaren urte ogeita amabost
zala, zan il agostuan,
Barkuz eldu zan Kartajenara,
an egun batzuk zituan;
Jaunak deituta Granadara jun,
an lan geiago zeguan.

Amabi ikasle bazituan
fedea erakusteko,
fedegabeak jarri zituan
etsaiak an agintzeko.

Santiago ta bere lagunak
agindu zuen iltzeko,
bait il zuen ta besteak lotu
katekin ez igesteko.

Santiago an firme zeguan
ordua bazan iltzeko,
baiñan Amari eskatu zion
Jesusekin laguntzeko.
Jaunak agindu aingeruari
Erregiña ekartzeko,
ekarri zuen baiño gaiñean
gizon auek askatzeko.

Birjiñak esan “Serbitzaria
jeiki zaite libratuta”.
Ta gizon onak gelditu ziran
Kate danak askatuta.
Gizon gaiztoak erori ziran
an zeudenak armatuta;
Amak pakea sortu, etsaiak
inpernura biralduta.

Juan zitezteela Espaiñiara
lurretan erakustera
eldu zira den Andaluzi
ta Toledon izatera
Portugal eta Galizia
Astorgan pasatutzeko
Riojan, Logroñon, Tudelan,
Zaragozan gelditzera

Jaunak: “Zuaz, Ama, Zara
– esna zion orduan–.
Jakoboi esan Jerusalem
etortzeko orainguan.
Ezten baiño len Eleiza bat
jartzeko dagon lekuan;
zuri laguntza an eskatzeko
Irutasunan goguan”.

Aingeruak jarri Erregiñ
Santiagoren onduan,
ekarria zuen pillare bat
marmol, jaspe antza zuen
Beste materi-klase batekin
egiña zuen orduan
Ama Birjiñan imajiña
aingeru auek eskuan.

Izan dedilla au otoitz leku
nere izena duana:
nere bitartez bere izena
da goratu bear dana.
Fede duenak eskatu dana
naiz emango dietana;
munduan azkeria arte emen
fedea izango dana.

Aldalur'tar Justine (klaratarra), Gasteiz

NORTASUNA

Entzuten ari gera, bi gizakiren arteko iritzia eta ezta-baida. Oso era onean. Bakoitzak bere ustea agertzen du eta bestearena entzun.

Baiñan, orrelakoetan oitura den bezala,” bakoitzak bere opillari, su”.

Bi gizakiak:

Bat. Pepe da. Sozialista. Gazte-gazte zela bere gurasoekin Euskal Errira etorri zen. Bere aita leendabizian fabrikari asi aurretik, baserri batean morroi ibilli zen. Eta euskera isaki zuen, ederki ikasi ere!!

Bi. Joxe da. Euskal Erriko semea. Kaletarra. Gurasoak baserrian jaiok. Eta oso sarturik dauka bere nortasuna eta orren ildotik abertzalea da. Ori kulturaren eragin batez ere, politika gordiña ez du oso gogoko.

Nola ezagutu zuten elkar? Bada, Pepe-ren aita morroi ibilli zela leendabizian esan degu. Eta ain zuzen, Joxe-ren aiton-amonon baserrian. Eta an gaztetxo zirela, adiskide on bihurtu ziren. Eta orrela jarraitzen dute. Beren iritzia, gazte gordin egin direlarik, oso bestelakoak badira ere.

Orain Erriko fabrika aundian egiten dute lan biak. Pepe makineta teknikaria da. Eta Joxe ekonomilaria.

Eta orrela doa elkarizketa:

Pepe-k onela dio: Nire gurasoak Euskal Errira etorri zirenean, alde nabarmena somatu zuten atzean utzi zutenarekin. Emen: Empresariak non-nai eta lanbide onak. An berriz terratenienteak. Oriek Erriko plazaren erdira joan eta beatzez aukeratzen zituzten, aldi baterako bear zituzten langilleak. Soldata murrizta eta gizartean alde nabarmenak. Erri xekak ez zuen jabetzarik. Lur sail galantak berriz oso gutxiren artean. Alarik ere erri min aundia sentitu zuten, beren sorlekua utzirik. Nire geroari begiratu zioten, ordea, an ez bait zuten ikusten etorkizunik.

Joxe-k berriz dio: Zuek etorri zifnaten garai artan emen ere denbora gutxi zela, erri xearentzat bizimodua obetzen asia bazegoen ere baserriarrek ez zuten baserriaren jabetzarik. Jauntxoak ziren jabeak. Nola? Ez dakigu. Baserriar baten bizimodua ez zen eroso. Eguna argitu baiño leen jeiki eta egun guztian makurtuta bizimodua aurrera atera eziñik. Orregatik izaten zen maiorazgoa. Batentzako bakarrik ondarea. Eta besteak sakabanatuta, batzuk Ameriketara edo beste lurraldeetara, jaiotzetik urrun askotan. Fabrikak sortzen asi ziren

arte. Eta bear bada ortxe dago alderik nabarmenena, bi Errialdere artean. Zuenetik gurera. Zuenean territenienteak irauñ dute eta emen empresariak sortu ziren.

Pepe-k: Gure aita etorri eta, bereala konturatu zen, euskeraren bearraz. Euskera besterik ez bait zuen entzuten Errian. Eta ori kontutan arturik, leenengo lana, baserrian aukeratu zuen. Baiña baserri ortako aiton-amonon, zureak, Joxe, ez zuten zerikusirik ango terratenientekin. Morroia ere etxeko bait zen. Eta asieran zekiten erdera pixka ere azaltzen saiatzen ziren, aita ez bait zuen euskera tutik ere ulertzen. Gaur berriz ikus dezakezunez, euskaldun peto-peto bat dirudi. Ama gau eskolara joaten zen. Eta orrela bertako mutiko bat bezala azi eta ezi nintzen. Zuen artean euskaldun bat geaigo biurtu arte.

Joxe-k: Bai emen berriz aiton-amonon, bere jaiolurrean, bereak eta bost! ikusiak ziren, ain zuzen gaztelera ez zutelako menderatzen. Iri burura joan, an naiz eta bere baserriatik gertu izan, gaztelera entzuten zuten barra-barra. Eta baserriar gizarajoei, irripar egiten zioten, eta onelakoak entzun bear: “Mira caseros, boronos, son muy desconfiados”. Eta nortzuk esango orrelakoak, eta bertakoek!!!. Nire aita eskola ona ikasi, eta lantoki eder bat aukeratu zuen iriburuan. Eta bein lantokian gertatutakoa maiz gogoratzen du. Lantokiko agintari batek, kanpotarra zen, euskeraz ari zela somatu eta, auxe esan omen zion: “Mire Ud. el vascuence está bien que lo hablan entre Uds. en casa, pero aquí hace mal efecto entre los clientes”.

Eta azken aipamen orietan, nortasunaren arazoan sartzen gera, bete-betean.

Pepe-k onela dio: “Sor lekua utzirik gazte nintzelarik, Euskadin sartu nintzen kuraxez beterik... Bortzetan geroztik nigar egiten dut...” Zuberotarraren kantak dioenaren antzera, nik ere berdin esaten det.

Bizimodu ohea dagoen toki batera zatoz, aldi berean ordea, erriñima sortzen zaizu. An gelditu dira aiton-amonak, lagunak, oitura zaarrak, urrutiago gertatzen zaizu asaba zaarren oroitzapena. Eta Erri ezezagun baten aurrean txertatzen zatoz. Txertatzen esan det, nolabait adierazteko. Txertatzen ori ez bait da ain erreza izaten. Zuk or barruan, biotzean, burmufn, urtetan xurgatu dezuna bait daukazu. Eta bi kulturen arteko tenka sentitzen dezu. Oso ezberdiñak izanik bi Erriak kultura eta oituren aldetik. Eta emen abertzaleen artean eragin aundia dute Sabin Arana-ren iritzia.

Ondo diozu Pepe, dio Joxe-k. Kanpotik datorrenak, ez daki bertakoaren berri. Ez sakonetik beintzat, eta or sentipena baldintzatuta dago.

Ordun Joxe nirekin bat etorriko zera, gogor xamar egiten zaizkidanean zenbait iritzi. Batzuk bete-betea jotzen dizuenak. Sentipenaren aldetik, nabarmen-nabarmen oartzen zera ez zaituela batzuk bertakoa bezala artzen, euskera ikasi badezu ere. Eta “belarri motza” eta antzekoak entzuten dituzu.

Badakigu Pepe, Sabino-k etorkiñen aurka jokatu zuela. Asko etorri ziren Bizkaiko minetara, eta orien bearra ere izan zela aitortu bear. Ez baita edozein gertu izaten meatz beltz orietara sartzeko. Eta norbait izan bear. Sabino-k ordea, uste zuen, arrotz kultura nagusitzen ari zela etorkiñekin, kanpokoek ekarritako oitura era izkuntza indartsuarekin, alegia. Eta gaiñera, erligioaren aurkakoak izanik sozialistak, ainbat eta geiago. Eta Sabin-en ikurra “ Jaungoikoa eta Lagi Zaarra” izan. Jaungoikoa-ren menpekotasunean zituen bere elburuak. Eta besteren burutapenak ez dute iñor iltzen. Iritziak onak, obeak, edo kaxkarrak izan daitezke. Baiñan kristatasun batean bildurik badaude, ez dira iñoren aurkakoak. Zurearen alde jokutzen dezu, eta or oztopoak eta eztabaidak sortzen dira.

Bestalde, Sabin-ek ikusten zuen, euskaldunak ere Erritik kanpora joan bearrean aurkitzen zirela, Ameriketara batez ere, emen baseritik bizitzeak ez bait zeukan etorkizunik. Leen ezan bezala, zaarrena gelditzen zen, maiorazgoaren legetan, ondare guziarekin, eta alarik ere naiko lanak izaten zituen aurrera ateratzeko. Fabrikak bertan asi ziren arte.

Pepe, itz gogorak ere izan zituen Sabin-ek Bizkaitarrentzat, eta or ez zituen jauntxoak kanpoan utzi. Onela zioen: “ Zer egiten degu -milla bider esan denez- Euskal Erria askatuz, lau jauntxoren mendean gelditzen bagera ? Edo beste au ere: “ Bizkaitarraren zori txarrik aundiena, ez da oitura zaarren baztertzea, ez da ere etorkiñena, ez da ere politikak sortutako arazoak. Bizkaitarren zori- txarrik aundiena, bere Aberria ez ezagutzea da, eta ortik sortzen dira, besta gaiñuntzeko kalteak, gure nortasunari bete-betea eusteko” Ondoren dijoana ere gogor-gogorra da, onela zioen Sabin-ek, bere anai bizkaitarrei: “ Izkuntzarik zaarrenetakoa dogu, zuen mendiak baiño aberatsagoa, zuen itxasertzeak baiño indartsu eta goitia- goa, zuen soroak baiño ederragoa, eta zuen gurasoen izkuntza izanik, zuek bizkar eman diozue...” “

Ama izkuntzak, badakigu, jarraitzen du Jose-k, gure biotzean eta burmuñan duen eragiña, eta izkuntza orri eusteko aalegin guztiak egitea, bearrezkoa da, eta zori- txarrez euskerak etsai asko izan ditu mendeetan zear, kanpoko etsaiak eta baita ere bertakoak. Euskera nola edo nondik sortua degun jakin naiean, zazpi milla urte

atzera jota, galtzen degu bere arrastoa. Beraz zazpi milla orietako antziñatasuna du gutxienez. Orduan Sabin-ek esan zituenak zenbait bizkaitarren aurka ez dira arritze-koak. Ez eta ere kanpotikakoengatik esandako batzuk, ez dira arritzekoak, garai artan beintzat. Aitortu bearra ere badago ordea, edozein gizakik bezala izan zituela bere utsuneak. Baiña, leen esan dedan bezala, izkuntza indartsu baten jabeak izanik, etorkiñak, oitura berriekin etorri ziren, erligioaren aurkakoak, eta Sabin-en ikurra, berriro diot “ Jaungoikoa eta Lagi Zaarra” izan. Eta bere ustetan, den-den orien eragiñak, gure nortasuna, bete- betean jotzen zuten.

Eta Sabino-ren jokaera bear bezala artzeko, Pepe, Euskal Erria-ren gertari politikoak ere kontutan izan bear. 1839an eta 1876an , Euskal Erria-ri eskubide guz- tiak kendu bait zizkioten, politika aldetik. Alegia, Lege Zaarrari bere edukia sakonetik ustu zioten, denok daki- gun bezala. Eta esandako guztiaren eragiñez, bota zuen arako ura: “ Euskadi da euskotarron Aberria”. Beraz, gauzak tentuz artzeko, testu ingurua kontutan bear. Eta ala ere, gaur arte orrela izan da eta emendik aurrera ber- din izango da, noski, denetariko iritziak, sozialistenak eta abertzaleenak. Jakin egin bear iritzi orien ezberdin- tasunak, pakean artzen, eta aurrera egiten denon onera- ko. Azken batean latineko esaerak dioen bezala: “ Pri- mum vivere, deinde philosophari”. Leenengo bizi, eta gero filosofatu.

Eta esanak esan, Pepe, gizakiok elkarrekin bizi bea- rra daukagu. Bata bestearen bearrean. Bakarrik ez bait gera iñor. Bearrena bizikera orretan , gizalegea bete- tzea. Eta esaerak dioen bezala: “ Zenbat buru ainbat aburu”. Ori ezinbestekoa da.

Bukatu dute bi lagunek ezbabaida.

Eta Pepe-k orain: Edango al degu, botilla bat sagar- do??

Bai, Pepe. Dio Joxe-k. Gustora eta irekin, ainbat obe. Lagun ona aiz eta.

Sagardoa dastatzen:

Pepe-k: -Ederra sagardoa!!!

Joxe-k: -Bai politta dago!!!

Illunabarra eldu da.” Arras gorri, goizean euri”. Esana eta izana. Orrelakoxea bait dago. Goian laiño bel- tzak meatxuka. Began, bi gizonen arteko argitasuna, patxara, adizkidetasuna, anaitasuna.....

Mundu onetan, denok bait gera amaren umeak. Eta ori ikusten ez duenak, berekin du liskarra.

Bilbao-ko Euskerazaleak Alkarteko “ 2005eko Ipuin sariketarako”

Joxemari Murua-k

FELIPE ARRESE BEITIA (1841-1906)

(OTXANDIO´KO OLERKARI TA SANTUGIÑA)

Aurten bete dira, urterillaren 16n. egunean, eun urte Felipe Arrese Beitia Otxandio´ko olerkari ta santugiña il zala.

Orregaitik egin jakoz omenaldi gogoangarriak Otxandio´n bertan eta Txurdinaga´n dagoan Begoñazpi ikastolan.

Begoñazpi´ko ikastolearen sortzailleetariko bat Josune Zearra izan zan eta, ain zuzen be, Josune au Arrese Beitia´ren illobea da.

Ez da arritzekoa ba, ikastola onetan ain egokiro ospatu izatea 100n. urte au. Gaiñera, egun orretarako Arrese Beitia´k egiñeko irudiakaz eta berak idatzitako jatorrizko idazkia-kaz erakusketa gogoangarria gertatu dabe.

Antxe izan zan Karmelo Etxenagusia Bilbao´ko Gotzain Laguntzaillea eta Josune´ren senarra dan Sabin Zubiri eta biak egin ebezan Arrese Beitia´ri buruz berbaldiak.

Felipe Arrese Baitia´ren bizitzan iru gauza aitatu bear doguz.

Lenengo, olerkaria zala: Lege Zarrak kendu euskuezalako negar egiten daben areitarikoa dogu. Eta orduko lege zarrak eta gaurko aber-tzaletasuna gauza bat bera dira.

Bere olerkiak beroak, euskaltasun aundikoak eta biotzera sartzen diranak doguz.

Bigarren, santugiña zala: Gas-teiz´en ikasi eban marralaritza eta orren ondorioz pozik egiten ebazan eleizetako irudiak eta irudi orreik elei-

za askotan dagoz. Batzutan, esaterako garbitokiko arimak agertzen diranean, oso mintsu agertzen da santugiña.

Irugarren, erri-gizona zala: Izaten dira errietan olako sen aundiko gizonak, eta Otxandio´n olakoa zan Felipe Arrese Beitia. Etxean arazoren bat eukenak beragana joaten ziran pozaren eta onuaren billa eta berak biotz onez eta begi zurrez emoten eutson bakoitxari bear eban aolkua edo zuzenbidea.

Poztu gaitazan olako gizonak sortzen dauzan ama aberri baten jaio ta azi garalako.

Amaitzeko bere bertsotxu bat daukazu emen, irakurle

OLAZAR´tar Martin´ek



"Ez beietan ja ez dot ikusten
Tubalen ume zintzorik,
ez dalako gaur emen entzuten
erdera baño besterik.
Onexek dauka nire biotza
naibagez erdibiturik,
ez dodalako gure euskera
osatuko dan usterik"

EUSKERA, EBERKERA TA BESTE ERDERAK

Euskera bat da ainbaten artean.
Ta bai eder, kuttun eta
doiñu doian, kañabera utsa
baizen ereskinsu!

Irri-algaraz,
olatu nekegaitz eriozkiñez
amar milla urteko
euskal intxaur-oskol txikia
zarkildua aurrera doa nekez...
Justizia du eska-oska,
atoz bai, urrats bigun!
billuzi dago-ta
bere itsas-errian bertan.
Altxor izanarren
eta erroz gora. Ene bada!
Iñork ez dio
jaramonik egiten. Ta
okerrago dana
erdaldun zenbaitek
irainkor eta narda jario
erasoka dabilzkio.
(Endaitzari eldu ta aurrera!)
Iñoiz egingo ote zaio justizia
erri txiki ta xumeai?
Ekaitz-erauntsiaz,
odei-murruak iradu datoz.
Ez dakit ze justizi egingo zaien
besteen ankape ta
gau-oialpean dagoaneko
aul- doi-doi arnasestu eta erio-zartadaz
desagertzen ari diran
ainbeste ta ainbeste erri
ta izkuntza!
Arrixkuan datzan
euskera-ontziari par dagiote
gure leptik. Ta muker gabiltz.
Emen egien ditudan galderak
eta esaldi txeratsuak:
zer, zergatik, noiz e.a.
etzait iruditzen
funtsezko galderak
diranik,
ez bait-dute iñolako
erantzunik beñere izango.
Erriak eta
beurekin zortean
loturik daukaten izkuntza
gaizki edo gezurrezko
poz-ametsetan
(Ai! gure ametsak!
amets salketan asi ezkeru
au baiño garatz irabazkorrakorik
ez!!)
edozein landarek
edo-ta gizaki ala
lore-kusku antera
denak, bere ildoari
jarraituz dute iraingo.

Berezko ajeak eta gaitzak,
ar eta xomorroak auldurik,
naiz etsai
dituztenengandik
menperaturik zearo suntsitu
edo lurrera jausirik
egotea besterik ez dute.
Gabiltzan arin!
Bai euskera eta bai
eberkera, edozein
mintzaera bezela,
bide berdiñetik
abia oi dira
erluritasun aundiz asieran
gero ta goitibera
pizkorrean
ezerezean galtzeko
orbel, iñaurkin eta
zimaruru biurtzeko?
Ez. Ez dira galduko
Babilonia' ren txeamena
da, bai, orrek lur duena joko.

IZKUNTZEN GOLDARIAK

Europa'n izkuntza ospatsu
izan zan baten lorratzak
ikus ditzakegu. Ametsetan ere bai.
Ez saskittoa ez bezain zar,
askoz gazteago
eta ankapuntan jarrita
egian zenbaiten ezpaiñetan
ikus edo entzun dezakeguna:
LATIÑA' rena. Dena zapaldu zigunarena.
Garai batean
eremu zabal eta
indar bizi-luzea ezagutuarren,
aspalditxotik
errien ezpaiñetatik ixildua.
Eta eliz-jendearen
erlijiozko jardunez
oraintxe arte iraunazia.
Latiña, Erroma zar inguruetan
be-maillako usaiaz
txiro jaio eta
urteen joanean
koskondua dugu,
izkuntza guztiak bezela:
jaio, azi, garatu ta illondu.
Denboratan arian,
izkelgitzat
(be-maillako izkuntza-kume)
jotako latin arlote onek
gerkera aberats landuari
berak (latiñak, alegia) amarrua du joku
etzeuzkan zientzi ta
erti-itx guztiak lapurtu
ta bere-bereak egin zitun.
Erromar gudarozteen bitartez

IZKUNTZAK

arrigarrero zan edatu (aldia il-kanpai joka)
Europa'n barrena
eta gero areagotu ondo errex gaiñera
bere mintza-indarra zeraman
administrazioaren ariketaz
eta baita (len esan dugunez)
eliz-liturgiaren bidez ere.
Sanskrito eta latiña,
biztanlego aundi baten
mintzoak izan zirala,
jatorri askotakoen
eguneroko mintzaira,
ikasienak eta ikasigabekoenak,
mederatzaille ta zapalduenak
maixukiro kulturaz loretuak
lege-gaitasunaren indarrez
ofiziala (ta aberatsak ez zurikatu)
mende luzetan irauketan
ta gaur arte erlijioetan
erabillia, nun dira gaur?
Sanskrito ta latiñak
ez dute dagoaneko
bururik jasoko,
ez dira iratzarriko.
Mintzairak kalean
iltzen diranean ez dute
berpizteko itxaropenik.
Ta jende-iltzegille multsoak
geiago dezake
Akademia gorengo baiño.
Izkera jardunean (miiz gera altsu)
bizi bait-dira mintzairak.
Bi mintzaira oiek
goen maillakoak izan ziran.
Aien izerdiz inñuturik
dira bizi – Erio atek itxi–
gaurko zenbait mintzaira-kimu.
Zerk ditu eraman eriotzara
ezilkortasuna
arnasartzen zuten bi aukerak?
(eta auker bezela beste batzuk?)
Gaitz zeatz batek
eraman ote ditu eriora
ala zaarrez ajeatu
ta abaildurik il ote?
Ze gaitz gero!
Bizirikabeko izan
eta gaixorik!
Uler eziña zait.
Arriak ba dauka bere gaitza.
Arrizko eraikiñak
arri mee ta exkaxez eraikiak
batez ere.
Denborak errex onda ditzake.
Gaitzak jota. Baiñan ze gaitz?
Aizea, euria, kresala, elurra,
uxo gorotz eta abar.
Oiek denak suntsitu ta
desegin lezateke arri mea.
Eta berdin da gertatzen
zurakin.
Zurezko eraikin edo iruditxoak
baita lur-zola ere (eta ertil-lana)
xomorroak joa ta xixkatua
poliki ta kri-krika

onda lezateke.
Baiñan elerti-lana, idatzia
ta izkuntza,
nolako gaitzak jo lezake?
Geroak digu esango. Aulak gera,
Anemiak il omen ditu
elertiak
izkuntzalaritzaren pilosopariak
eta beste zenbait politiku –
abotzar aundiren esanez tajuz
inñututako mintzaira
mardulpean zapalduak.
Baiñan ba'dira
besakume izanarren (edo-ta iraiñez
eta eztenka ala deituak) eta
bazartu-eraziak, aldi berria
iritxiko zaielakoan
bizirik jarraitzen dutenak.
Landareen adin-muga
eta abereenak ere ezagutzen dugu
Baiña nun datze muga izkuntzetan?
Agian kultur geiegiak
iltzen ote ditu? Alare
ba'dira, gerker bezela,
il ez diran mintza landu-landuak.
Latera bera baiño
zaarragoa dugu gerker
ta loretsu bizi da.
Ba'dira elertigabeko
edo-ta gutxiko
mintzaira zar-zaarrak,
ezin esaneko
egoera zaillean bizirik.
Il-zori luzean sarri,
baiñan alare,
bere billuzgorritasunean
bizi-bizi dirautenak,
gure arbasoen ondare dan
euskera bezela.
Euskaldunak oso antziña
sortu zuan
bere mintzabidea.
(Ba'du bai etniarekin
zer-ikusi aundia!)
Ez da inñungo izkuntzaren
kume, (gaurregun
ezagutzen ditugun bezela).
Ezta Europa bertan ere.
Jasan bear
izan duan nekaldia
zertarako azaldu?
Denok dakigun
gauza da-ta.
Ta bizi da, bizi,
Etorkizun
itxaropentsuari begira
Euskeraren negute luzea
joan doa
otz, euria ta nekez betea.
Zatoz lenbailen
erlez ta lorez jori
animaren udaberri
illunaldi tamalgarriaren
pizkorgarri. Itxaroren
aldi sorgingarri.

TURISMOA LIZARRAN

Turismoak garrantzi aundia dauka Lizarran. Naparroko iri koxkor onek ba du turismoa ondo antolatua, Merindade edo jarerriaren buru daukagu Naparroan; sartaldean datza ezarria iri koxkor au, mendiz ingururatu ikusten dugu. Ba ditu eliz erromaniko ederrak. Gaiñera Santiagoko bide ondoan datza ezarria.

Bertatik dijoakio EGA ibaia ederra. Andimenditik asita Ebro ibaiaraño erri guztiakin arremanetan dago. Astero daukate merkatua edo azoka, Naparroan ederrenetakoa.

Gaxotegi galanta era ba dute. Turismo aldetik badaukate oficina ederra, lurralde orren berriak ematen dizkizutenak. Etxe osoa dute turismoare laguntzeko; antziñako Naparroako errege etxearen aldamenean, San Martiñen enparantzaren ondoan. Beti ikuslez inguratua izaten da. Turismoa zaintzeko tokia ezin ohea.

Ortxen bertan daukate Guztabo de Maeztu margolaria-
ren erakusketa. Turismoa eratzeko toki berexia. Ortxen agertzen dituzte inguruko lurraldeen emaitzak edo ondorioak. Asmoa ezin ohea. liburu pillak daukate orko berriak emanez; berri zarrak eta gaurkoak.

Ikusi ditzakegu ardo gorri ta txuriak Naparroan, or bertan egiñak. Oietan batzuel ludi osoan eratuak. Iratxe izenekoak ain ezagunak ere. Besteak Monjarin izenekoak. Mastegi galantak daude or inguruan.

Erri geienetan egiten dituzte bere ardoak. Dasta ta margoz begiak eta mingaña txorutzen dituztenak. Orko tolareak ozo izen aundikoak dira.

Gora ta berea or ikusten ditugu Santigoko erromeslariak, geienak oñez dijoazte, nazio-arte askotakoak.

Artzai ta baserritarren eskulanak ere agertzen dituzte turismoko etxe onetan; egurrezko zaliak eta sardetxoak eta nola ez, ardo zagiak. Urbasa ta Andimendiko aradi gasna onak ere ementxen saltzen dituzte.

Beste ainbeste erran dekegu bertako baratzetan egiten dituzten baraki goxoekin; kardaberak, alkatxofak, zain zuriak edo esparragoak, babarrun zuriak edo potxak deitzen dituztenak.

Oso ezagunak ere dira bertako kafesniarekin egindako goxokiak. Gañera lepoa apaintzeko muxuzapiak, gazteak eta gaztetxoak jartzen dituztenak oso atsegiñak izaki ta erriko jaietan margo ederra ematen die egun bereziei. Izen polit batekin deitzen dituzte errian; "kukuxumuxu" zapiak.

Salgai era daukate zillarezko lauburuak; euskaldun edergallu bezala. Igeliak usai onezkoak botilletan erosi ditezke, batez ere muxiak eta baxakanak.

Eztia berta eultzetan egiten dituztenak eta basaloreak urrun joan gabe biltzan diranak.

Baxaranekin egindako patxarana, edari bizigarri artzen dute; patxaran izenarekin ezagutzen dana.

mapak ere ugari daukate lurralde zoragarriak ezagu-



tzeko, bai mendi aldetik, baita ego aldera, Ebro ibai ondoan; lurralde denak uste baño ederragoak.

Galdezka dijoazten guztiak galderak egiten dituzte eta gizasemeak etengabe urbiltzen dira. Lenik lan eder ori egiteko iru nexkatxa eta bi mutil daukate. Oietatik biz-pairuk euskara maite dute. Lana ontan euskal kutxua agertzen dutenak bearrezkoak dira.

LATXAGA

EUSKERAZALEAK

IPUIN-SARIKETA 2005

- 1.º Saria: **Joxemari Murua Goñi**
- 2n. Saria: **Palmi Merino**
- 3n. Saria: **Asier Legarreta**
- 4n. Saria: **Osintxu**
- 5n. Saria: **Ziortza Arrien Orbe**

EUSKAL ERRIA SOIÑUZ, DANTZAZ ETA KANTUZ (ELAI ALAI DANTZA- TALDEA) (1927N. URTEAN)

Segundo Olaeta´ren eskutik sortutako taldea ei zan. Gal-dakao´ko erri eta Andra Mari dantza-taldeagaz zer-ikusia aundia eukan eta ortik gure errian gerratik geroko talde batzukaz ba-dauka zer-ikusia, gure erri eta Andra Mari´gaz be bai. Bestela irakurri idazki au eta gero ikusi.

Gerra-denporan alemanak Franco´ren agindupean Gernika eta beste toki asko erre eta desegindu ebezan. Onduan il asko izan ziran bonbaketa areitan eta abar.

1937´ko martiaren 19´an Elai Alai geiena, Segundo Olaeta eta Lekeitio erriko txistularia zan Alberti Iriarte (txistu 2^a) izanik eta onen anai Jose Iriarte (atabaleru) eta euren lengusu Oñati erriko txistulari Ijinio Iriarte (txistu 1^a) eta guztiokaz Bilbao´ko pandero-jotzaille Miren Uribarri baita Gernika´ko soiñulari Fernando Bilbao, Gordexola´ko Villa Cuba txaletean alkartu eta ensaiuak egiten bertan pareu ei ziran.

Taldeak albokaririk ez eben euki eta eroan be ez eben egin. Fernando soiñulariengandik gero, soiñulari Bitor Olaeta pareu zan.

Euskal kultura, euskerea, sustraiak, folklore eta orrelako euskal usaiña eukiten eban dana, baita personak be, Franco-tarrak kartzelaratu, il eta desagertu be egiten ei ebezan.

Orduko denporan euskeraz iparraldean 140 000 personak itz egiten eben eta egoaldean 600 000 personak, baiña Franco´ren gerra-irabazleak euskeraz mintzatzea galazota euken, baita administrazio-aldetik ere bai, gobernu zentralaren zerbitzuz, eta Euskalerriko Diputazio, eskola, eta periodikuetan be galazota egoan, etxetik kanpora danean, eta erderaz egiten zan, euskeraz berba egitea edo euskeraz idaztea edo argitaratzea, gerra-irabazle alkarte onek euskerata onen usaiña be dana galazo eban-eta.

Gaurko gazteak, ez egon lo, zuen bizitza euskeraz egizue eta lagunak euskera ez ba´daki, zuk euskeraz mintzatu, euskerea geurea eta guztiena da-ta.

Segundo Olaeta jauna Agirre Lendakariaren gonbernuak dantzea ta eresa edo musikea irakastearen begiratzaille izendatu eban eta Segundo´k berak sei dantza-maisu izendatu ebazan eta euron artean Juan Martin Pertika jauna be bai.

Gordexola´tik eta trenez joan ondoren, Elai Alai taldea Santander´era eldu eta komunistak kurutze ta ezer barik almazentzat euki eben Jesuiten eleiza baten egun pare bat-edo egin ondoren, Hotel Real´en lo egin eben taldeko danak, Segundo Olaeta´k izan ezik.

Eusko Jaurlearitzaren jaurketa- arduradun zanak aginduta Segundo´k emen geratu bear izan eban. Baiña aste bat geroago Balentzia´tik Errepublikako Gobernuaren baime-naz, Olaeta jauna, Elai Alai taldeagaz alkartu zan Dax´eko

Gotzain jaunaren etxean. Katoliku modu onekoak izaten ziran lez, mezara be kantetako joaten ziran Elai Alai´koak. Dax´etik Bucon aldera etorri ei ziran. Baiona´tik sartuta dagoan Bucon inguru orretan egoteko.

Tartean Donibane Garazi´n ERESOINKA taldea sortu zan, musika, kantu eta dantza egiteko eta Euzkadi´ko Gobernuaren izenean eta onen ordez Europa´ko leku askotan egon ei ziran Euskalerrikoentzat laguntza iturburu izaten eta biltzen.

Segundo Olaeta jaunak Iparraldean lau dantza eskola zabaldu ebazan, bata Biarritz´en “Olaeta taldea” eta gero ortik “Oldarra” eta ortik “Erorki” Philippe Oyhamburu jaunagaz. Baiona´n “Erro bat” taldea, Donibane Lohitzun´en “Begiraleak” eta Ustaritz´en klaseak emotea baiño ez eban lortu.

Orduan, batez be Eresoinka taldea Paris´en eta beste leku askotan be euskal soiñu, kantu eta dantzaren agerpenak egiteagaz, euskal gogoia erakusten emoten eban, one-lan laguntza artzeko Euzkadi´ko aberriaren alde.

Aita Donostia´k Iparralde´n bere itzaldietan, bai Baiona´n eta abarretan jantzan egiteko Olaeta bere taldeagaz eroaten eban, euskal gogoia eta kristasutasuna obeto erakusten emoten ebezelako. Frantzia´n katoliku ezkerria izaten zan Olaeta eta bere taldearen laguntzaille ezkertarrak izaten ziran, katoliku eskoitarrak Franco´tarren alde egozalako.

1939n. urtean, Aberri Egunean, Elai Alai eta Eresoinka dantzan eta kantatzen ibilli ziran, Europa´ko laterrien laguntzaren billa.

Alemanak Frantzia´n sartu ziran eta Iparraldera eldu baiño len, Rosario Torrezuri Larruzea, Segundo Olaeta´ren andrea, bere aiztea eta aita zelan egozan ikustera Gernika-aldera etorri ziran, baiña bitartean alemanak iparraldera be allegatu edo eldu ziran, baita Bucon aldera be. Olaeta´ren andreak bueltan be muga pasatu barik eta Sara erritik etorri eta D.Jose Migel Barandiaran abade jaunak mugako bideak ondo jakiten ebazan lez, gau baten Iruñetik eta Larrun mendiko otartetik beste batzuz laguntzagaz pasau eban Olaeta´ren andrea. Isillean, ezkutuan joiazala esan eutson, gero Bukon-aldera familiarengana joateko eta bertan geratzeko.

Alemanak Baiona eta Bucon parajera be etorri ziran eta bertan geratu ziran. Olaeta ta bere taldea, Elai Alai taldea, an egozala.

Egun baten Bucon aldean egozala, militar jantzita gizon aundi eta sendo bat etorri jaken Olaeta non dagon galde-ka eta egia esan bear izan eutsoen, an egoala-. Aurrez au militarra ta Olaeta egon ziran eta, alemanak agur militarra egon ei eutsoen Olaeta jaunari.

Antza dagoenez aleman arek Aita Donostia´gana joan

nai izan eben eta Donostia'k euskal dantzak eta ondo ekizala. Orretarako joian alemana Olaetaren billa.

Olaeta jaunari aleman militar arek agur militarra egin ondoren euskeraz esan ei eutson: Ni Smith naiz, eta Berlin'en euskerazko irakaslea naiz eta emen aleman ofizialaren aurrean Euskal Erriari buruz itzaldi bat emotera noa eta zura taldea bear dot, eta euskal imnoa abestuko dozue. Olaeta'k erantzun: Gernika'ko Arbola? Esan ei eutson eta alemanak ezetz, ereserkia "Gora ta gora Euzkadi".

Olaeta'k erantzun ei eutson:Gora ta gora Franco'k galazota eukola eta ezin dala eta orduan ofizial alemanak Olaeta'ri erantzun ei eutson: Emen ez dau agintzen, ez Franco'k eta ez frantzesak, emen alemanak gara agintari.. Orduan eguna jarri eta kamioi baten taldea sartu eta Donibane Loitzun'eko Otelik onenera joan ziran, itzaldia emongo zan lekura eldu ziranean, dana izan zan Euzkadi'ko ikurriña, eta aizkolari, pelotari, dantzari eta abarren irudiak agertzea, danak Baiona'ko Museo'tik alemanak ekarrita.

Itzaldian "Gora ta gora" euskal ereserkia abesten asi ziranean, eta pozez negarrez egozala, koronel eta ofizial aleman guztiak zutundu egin eta tente jarri ziran abestia amaitu-arte.

Itzaldia ta jaialdia amaitu eta une berean koronel alemanak esan ei eban: El pueblo aleman admira al pueblo vasco ¡Viva el Pueblo Vasco! Beste egun baten, beste aleman militar batek soldadu raso bat eta euskalduna, Krausser jauna, Euskal Erriari buruz euskeraz eta alemanez itzaldi bat emotera doala eta Olaeta bere taldeagaz eroan eban Biarritz'eko otel batera. Beste bi itzaldi eta bi jaialdi be alemanak Euskal Erriari buruz emon eta Olaeta taldeagaz alemanentzat egin ebezan.

Egun baten Baiona'ko konsul aleman jaunak Olaeta jaunari deitu eta esan ei eutson Donibane Loitzun 'eko otelean abestu zana ia "askatuta" izan ba'zan eta Olaeta'k ezetz; Solo el himno vasco erantzun eta euskeraz eta españeraz ipiñi eutson idatzita eta kontsul jaunak esan ei eban: "Ah, esto está bien.

Eresoinka taldea desagertuten joan zan eta Elai Alai Jose Antonjo Agirre'ren Lendakaritzak eurenganatu eban. Orrealn 1937n. urtean joan ziranak Gernikaldeko bazterretatik, bost urtean iparraldean eta Frantzian zear ibilli ondoren, lenengo bakarrik eta gero Eresoinka desagertzean eta lendakaritzaren babespean etxerantza biurtu ziran, bostgarren urtean etxera bueltan etorri ziran.

Gerrea amaituta gero, bein Txeluren gana agertu zan Gotzon Gallaga. Lenago Abando batzokikoa izan zana eta au itaundu eban, ia dantza-talde baten dantzatu nai eban; eta Bilbao'ko koralaren babespean Txelu dantzaten asi zan, 18 urte ebazala, Pertika jauna maisu zala.

Ayala Teatro'ko ugazabak dantza-saioak egiteko, gazteleku izan zan tokia itzi eta Txelu ta beste batzuk ara joan ziran.

Bilbao'ko Koralaren babespea, legeak beartutakoa zan, gerra-aurretikoa zan talderen baten babespea bear zalako. Orrelan izan zan "Coral de Bilbao" rena.

Orduko denporetan Bilbao'ra lan egiten gipuzkoar dantzari on bat zan Manu Otaño etorri zan eta arek bere dantzak irakasten ebazan. Manu Gerrikabeitia'k Gipuzkoa'ko dantzak ikasteko eskatu eta Pertika Beti Alai taldean irakasten asi zan.

Txelu gazterik asi zan Bizkai'ko dantzak bilduten: Muxike, Garai,Iorreta, Berriz, Xemein, Lekeitio eta Foru errietan ibilli zan.

Muxika'n aureskuen erregelak, Durungu'ko erregelak deritxenak eta Busturi-aldeko erregelak galduta egon arren, Gernika errian aureskulari batengandik ikasi ebazan eta Busturi-aldeko Soka-dantza be bai. Garai errian Gernika'ko Arbola dantza, Iorretan be bai.

Berriz'en Dantzari dantza, Xemein'en bertoko Espata-Dantza, Lekeitio'n Kaixarranka, Foru errian Busturi-aldeko Soka-Dantza.

Dantzak irakasten, Txelu Bilbao'ko Dindirri taldean asi zan. Dindirri itzi barik aurreko Basurtu'ko Dindirri Dantza-Taldea gogoratuz jarri zan.

Gero Begoña'ko Karmelo'n egoan Gazte-Dantza taldean eta Ajangiz'en dantza irakastez ibilli zan, naita Gaztedi'ra Txomin Untzalu eroan. Baita Galdakao'ko Andra Mari Taldean eta Durungu'ko eleizan be bai ibilli zan Txelu.

Bilbao'n Bizi Nai taldean noizik bein egoten zan eta Donostia'n Kursal'en eta Nafarroa'ko Iruña'n eta Tudela'n be, Bizkai'ko dantzak irakatsi eta angoak ikasi ebazan, emen irakasteko.

Ajangiz'ko Dantza-Taldea Gernika'ko Rojo Alkateak desegindu eban.

Txelu 1943n. urtean Bilbao'ko Dindirri izango zan dantza-taldean asi eta 1950n. urtetik 1960n.'eraño taldearen arduraduna izan zan..1952n. urtean Galdakao'ko Aita Txanton Karmelo'ko fraille jaunak Karmelo'ko gazte-taldera dantzak irakastera eroan eban, Dindirri taldea itzi barik eta gaztediaren lenengo kanporaketa 1954n. urtean Galdakao'ko Gumuzio auzoko Erletxeetara, kamiñoko bide-kurutzera joan zan.

Dantzan asi-orduko,Erletxeetako abadea zan Jesus Maria Markaida jaunak banderea bedeinkatu eban eta dantzatu-ondoren, dantzari guztiak, Txelu euren artean zala, Aita Txanton'en baserrira bata bestearen atzean erreskadan joan ziran eta Aita Txanton'en etxeokaz argazkia egin eta bazkaltzera gasolindegi-ondoko tabernara joan ziran. Boni txistularia be bai,gazte-taldeagaz egoan eta Erletxeetan bertan egun on bat igaro eban.

Garai errira Txelu ta neu joan gintzazan Gernika'ko Arbola dantzea zala-ta. Txelu'ri beste egun batzutan Santos Oregi'k pausuak irakatsi eutsozan, apur bat zelan ziran eta gero kurutzeak-eta zelan egin eta abar.

Sabin Bikandi jaunak Alejandro Aldekioa'ri buruz Londres'erako tesis bat egin eutson eta october 2.000 jartzen dau, baiña gauza batzuk gero be idatzi ditu, antza, Txelu'k bere liburuko eta beste geroko dibujoai buruz diñosten lez Idatzita dagon lan orretan 40n. orrialdean ingelesez Bikan-di'k auxe diño: Alejandro Aldekoa'k Txelu'k daukazen etorrerarik garrantzitsuenak dantzari buruz emon eutsozela eta liburua egiten eta idazten be lagundu eutsola, Jose Luis Etxebarria "Txelu" jaunaren liburua egiteko.

Txelu jaunak 1996n. urtean ikusmenik geiena galdu eban eta itu geratu zan. Nik ba-nekien Bikandi'ren esanak ez zirala egiak, baiña Txelu jaunak auxe idazteko diñost: Alejandro Aldekoak egin eustana zan berarena (dantzak irakatsi), nik apuntau eta besterik ez; Bikandi'k diñoana guzurre da. Ori da "un elemento de cuidado".

DANTZAK

DONOSTIA

1941n. urteko abenduaren 7n. egunean Jose Lorentzo Pujana dantza-maisuari Ordizia bere errian omenaldi bat egin eutsoen dantzariak, eta euron artean Brokel-Dantza taldea be an egoan.

Dantza Maixu orren semea dan Kandido jauna 1948n. urtean Udalaren Musika Gordaillu'ko toki baten dantzak irakasten asi zan eta Pujana maisuaren dantza- taldea izenagaz, "Circulo Tradicionalista" orretan dantzatu ei eben, urte orretan, aprillaren 25n. egunean (Goizaldi XXV urtemuga) liburu orretan esaten dan lez. Geroago dantza- taldeak ainbat toki eta lekutan dantzan egin eban.

1951n. urteko aprillaren 25n. egunean, izen batzuren artean, Jose Ignazio Montes Astigarraga (txistularia zan) eta berak aukeratutako GOIZALDI onartu zan. Ortik aurrera orrelan jarraitu eban,.

Uztailaren 26n. egunean, Euskal Asteko estreñaldian, Gran Kursaal antzokoian, Goizaldi'tik aparte partu artu ebenak Echola Cantorum, Dindirri, Duguna, Mauleoan eta Coro Maitea izan ziran

Donostia'n 1943n. urtean Gipuzkoa'ko Schola Cantorum nuestra Señora del Coro dantza-taldeak Korpus Kristiko jaiak zirala euren lenengo agerketa egin eben.

BILBO

Dindirri Dantza-Taldearen sortuerari buruz, Jon Pertika jaunari, bere aitagaitik galdetu neutsan eta 1943n. urtean iraillean, Juan Martin Pertika'k, Manu Gerrikabeitia'k eta Patxi Arrese'k Bilbao'n dantza-talde bat sortzeko, dantzari buruz artu-emonak euki ebezela eta Masa Coral del Ensantxe toki ortan 1943n. urteko azaroan, dantzaren zuendaritza Juan Martin Pertika'ren arduraopean zala. Ensantxetik gero, Coral de Bilbao'ren babespera eta onen tokira igaro ziran dantzariak.

Baiña, antza, 1941n. urtea izan zan Pertika'k dantza- talde bat lortzeko asmotan egoan urtea.

Dindirri Euskal Dantza Taldea eta Frankotarren aurkako jakintza-ekintzak daritxon liburuan be gauza asko dakraz Dindirri taldeari buruz eta Txelu'k berak be asko kontau daustaz.

Gero Dindirri dantza-taldea izango zanak, lenengo bere dantzaldia Begoña'n 1944n. urtean, San Isidro egunean egin eban Iparralde izenagaz.

Iparralde izen ori, Bilbao'n dan Ipar-garagardotegian (Cerbecera del Norte)'ren frotoian egin zalako zan eta ortik gero, dantza-taldearen izenabe etorri zan. Orduan Bilbao'ko Korralaren babesean dantzatzan eben.

Dindirri dantza-taldearen izena, Txelu'k esan eustan, Manu Otaño'gaz 1946n. urtean asi zala. Otaño jauna Euzkadi'ko Gobernuak eukan eresoinka taldekoa izan zan eta Bilbao'ra etorri zanean, dantzari ona zan lez, adierazo eutsoen dantza-taldeari laguntza emoteko eta taldekoak eta Pertika'k berak be zuzendaritzaren ardurea Otaño'ri emon eutsoen. Gipuzkoa'ko dantzariak Kiliki esaten eutseen eta Bizkai'koai Dindirri.

Lenengo saioak ainbat lekutan egin ebezan, baiña Bilbao'ko Gazte-Leku tokian ugazaba zan Pedro Tejada

jaunak dantzariak ikasteko tokia berton opatu eta itzi eutsen.

Dindirri izena, gerra-aurrean Deustu'ko dantza-taldeak euki eban eta ortik etorri zan guda-osteko Dindirri izena. Dindirri dantza-taldetik dantzari oso onak eta trebeak urten ziran, euron artean Jose Luis Etxebarria "Txelu", Txomin Untzalu, Iñaki Irigoien eta geiago.

Galdakao'ko Andra Dantza-Taldearen sortuera bera be, Gaztedi eta Dindirri'ko dantzarien eta irlanderen laguntzeari esker egin zan.

1950n. urtean Dindirri'ko Zuzendaritzaren arduradun izatea eta 1960n. urtera arte, Txelu'k artu eban. 1950n'ean asita ikasketak egiten iru bider, -iru egunetan- egiten asi ziran, nai ta Gazte-Leku'ko ugazaba jaunak dantzatzeko lekua doain eta pozik itzi. Dantzariak be pozik ebiltzazan, baiña 1952n. urtean Dindirri desegin egin zan.

Bilbao'n, 1945n. urtean eta Basurtu'ko Kirol.Bazkunean, lan bat geiago lez artu ebezan, Juan Martin Pertika jauna Dindirri'ko Zuzendaria izan zanak JAI ALAI mutikotxuen dantza-talde bat osrtu eban eta taldea egiñalean ibilli arren, eutsi-eziña etorri zan eta ortik gero Eziketa eta Atsedan Ministeritzak artu eban jabetza.

Bilbao'n Dindirri eta Jai Alai dantza-taldeetatik aparte, Begoña'n Karmeldarren inguruan Aita Txanton fraillari eskatuta, 1951n. urtean Dindirri'koak laguntzaille ta dantza-maisu zirala, Gaztedi dantza- taldea sortu eben. Lenengoan Gazte-Talde eukan izena. Gaztediaren lenengo kanporaketa 1954n. urtean Galdakao'ko Erletxeetan izan zan eta berton, kamiñoko bide-kurutzearen erdian dantzatu eben. Gaztediren berrogeigarren urte-urrenari buruz, liburuak be ba-dagoz.

IRUNA'N

Naparroan gerrea ezker, Iruña'ko Udal Dantzari- Taldea sortu zan, Duguna izena eukana, Pedro Arraras txistularia zuzendari zala. Arraras jauna ezagutu neban eta berak itzita Naparroa'ko alboka bateri argazki bat egin neutson.

Dantza-Taldea 1949n. urtean, urrillaren 27n. egunean sortu zan eta lenengo dantzaldia urte orretan azaroaren 29n. egunean egin zan.

Ba-egoan antzerki-antzeko ikusgai bat izen bardiña eukana, Duguna, eta lenengo agerpena Iruña'ko Gaiarre Antzokian izan zan, 1951n. urtean, ekaiñaren 21n. egunean, Bello Portu, Arraras eta beste jaun batzuk tartean zirala. Antzokian jai-aldi eder bat ospatu zan.

Orduko "Diario de Navarra"k be zeozer ekarri eban jaialdiari buruz, ekaiñaren 21n. egunean.

Denpora areitan eta Iruña'n bertan, Katoliku-Ekintza'n be Oberena izeneko dantza-taldea sortu ei zan.

GASTEIZ

Jose Antonio Zabalza jaunari itandu neutson Txirinbil dantza-taldeari buruz eta esan eustan 1952n. urteko aprillean sortu zala Txirinbil. Oldarki dantza-taldea 1954n. urtean sortua da eta lenengo agerraldia 1955n. urtean San Prudentzio egunean izan zan, euren eguna zalako.

URTE-KURPILLA GORULARI

(5n orrialdetik dator)

Urrilla. Garoa bilduz
Lurrak dezaken oro emana digu.
– Gaur illak, maite, zenbat ditu?
– Illak ogeitabost, amona!
– A! Urteurrena! Lege Zar galduarena!
Oroi beltza udazkanak dakarrena!

Egun argia mozten dijoa.
Uztak oparo dakarrenaz
mandioa urrintsu, ler-zori
errege-sagarren pixuaz.

Bako maastilari, Tolare jainko!
Topa! Apar-jario degun ardo!

Egaztiak lerro-lerro urrunduz
kua-kua'ka aztiatzen dute negua.

Ego-aizez, dinbi-danba, amaika eiztari.
Orgel igarra firi-fara egalari!
Azaroan itzai-mutilla ittulean:
– Aida Txuri! Aida Gorri!

Il-zori datza urtea
elur, trumoiz, aize txistuz betea.
– Itxi zak, laztan, utxi atea.

Kaskabarra ari du.
Illun kanpoan. Au ez da giro,
kalean ibiltzeko ordu.

Negutea goxaturik (pozik
nai bai degu bizi)
Jaiak alkargainka datoz:
Orra kristau gabonaldi.

Olentzero ikazkiña: Fede mezulari,
ta gure Erri alai, abeslari.

Danboliñeko gaztaiñak damaiote
kanta-gai “Aitor mutil”ari.

Otz tarte, zenbat atsegin:
maia, konpota, sutondo epela
ta gureztat iñun ez
Euskalerrria'n bezela.

Egaña'tar Gotzon

EDESTI-LIBURU IRAKURGARRI BAT (INTERESANTE LIBRO DE HISTORIA)

Bixente Latiegi adiskide eta lankideak bere azken-naian itzi dauskuzen liburuen artean ba-dago bat oso irakurgarria. Ona emen idazpurua:

“LA ESPAÑA QUE LA REAL SOCIEDAD
VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS
QUISO REGENERAR”

Erderaz dago, baiña Euskaldunak ziran “Azkoiti”ko Zalduntxuak” ezagutzeko lagunduko dautzu.
Liburu au gura ba'dozu, eskatu Olazar'tar Martin'eri, XXIII Jon zoriondunaren Enparanza 2, 48100 Mungia,
Bizkaia, edo EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean, Colon de Larreategi, 14, 2ª 48001 Bilbao.

Si quieres tener en tu biblioteca o simplemente leer un libro interesante de Historia referente al siglo XVIII, puedes pedir el libro cuyo título va arriba. Solicítalo en Euskerazaleak o a Martin Olazar (arriba tienes ambas direcciones). Son 270 inolvidables páginas.

BBK

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 euro)

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilero,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk⁺